

**Plan Estrategikoa
2015-2019**

**Hizkuntza Berdintasuneko
Zuzendaritza Nagusia**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputatu Nagusiaren Alorra
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia



Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren Plan Estrategikoa 2015-2019

AURKIBIDEA

1) Laburpen exekutiboa	3
2) Sarrera	4
3) Helburuak	6
4) Metodologia	7
5) Lan taldeak	9
6) Xedea, ikuspegia eta balioak.....	13
7) Zerbitzuaren amia	14
8) Faktoreak.....	16
9) Lerro estrategikoak.....	19
10) Lerroak, helburuak eta ekintzak	20
11) Ekintzen lerrokadura eta testuingurua kudeaketa plan estrategikoan.....	34
12) Jarraipen metodologia	39



1) Laburpen exekutiboa

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak (hemendik aurrera HBZN), legegintzaldi berria dela eta, hurrengo lau urteetarako Plan Estrategikoa 2015-2019 garatu du Modernizazio Zerbitzuaren laguntza teknikoarekin.

Hausnarketa eta garapen estrategikoko proiektua, ondorengo faseetan antolatu da:

- 1) Proiektuaren Plangintza.
- 2) Barne Analisia.
- 3) Kanpo Analisia.
- 4) Lerro Estrategiko, helburu eta ekintzak definitzea.
- 5) Jarraipen Metodologia definitu eta ezartzea.

HBZNk hausnarketa estrategikoaren prozesu parte hartzailea izan da, bai kanpo eta bai barne analisietan lantalde anitzak osatuz, proiektuaren plangintza fasean zehar definitu direnak. Kanpo Analisiaren kasuan, gainera, Euskararen Normalizazioaren sektoreko eragile ezberdinek parte hartu dute.

Hausnarketa estrategikoaren ondoren, hurrengo urteetarako ekintza eta proiektu estrategikoak biltzen dituen plangintza estrategiko zehatza garatu da. Eta ondoren ekintza eta proiektu horien jarraipena egiteko metodologia, hurrengo urteetako kudeaketa estrategikoa finkatuz.

Plangintza estrategiko hau garatzeko iraupena 3 hilabete ingurukoa izan da.

Proiektuan HBZNko pertsonak osatutako lantalde anitzak parte hartu du. Hauekin batera, Modernizazio Zerbitzutik 3 teknikarik hartu dute parte proiektuan, koordinazio eta gidaritza lanak eginez. Azkenik, kanpo analisia egiteko, sektoreko eragileekin bilerak egiteko eta informazioa jasotzeko kanpo enpresa baten laguntza bilatu da, kasu honetan Attest.

Prozesuaren deskripzioa hurrengo Prezi aurkezpenean ikus daiteke:

http://prezi.com/8dq1im2onhog/?utm_campaign=share&utm_medium=copy&rc=ex0share



2) Sarrera

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren 2015-2019 plangintza estrategikoa egiteko kontuan hartu dira aurreko urteetan aurkeztutako araudia eta planak:

- 2012-2015 Hausnarketa Estrategikoa.
- 2013ko Egitura Dekretua.
- Normalizazio Plana 2013-2017.
- Zerbitzuko Funtzio Analisia 2011.

Dokumentu hauek abiapuntu bezala izanik, HBZNn datorren urteetarako hausnarketa estrategiko berri bat egiteko, bere eragile guztien iritzia eta ekarpenak kontuan hartu behar dira. Eragile hauek hiru mailatan agertzen dira:

- **Aldundi barruko eragileak:** departamentu eta maila ezberdinetako partaideak aukeratu dira ikuspegi ezberdinak eta osagarriak jasotzeko.
- **Kanpoko eragileak:** helburu berdinarekin, beste erakundeei aukera eman zaie prozesu honetan parte hartzeko; udal teknikariak, enpresak, hornitzaileak, hedabideak eta beste administrazioak barne.
- **Gizartearen ikuspegia:** honetarako Gipuzkoako Foru Aldundiak landutako 2014ko Ebaluazio soziala kontuan hartu da.

Edozein Hausnarketa Estrategikoa egiteko landu beharreko lehenengo gauza hasierako egoera aztertzea izan behar du. Horretarako HBZNren AMIA eta Faktoreen analisisa egin da. Analisi honekin erabateko diagnostikoa lortzen da ondoren plangintza estrategikoa definitzeko laguntza emango duena.

AMIArekin barne eta kanpo analisisa lortzen da: Ahuleziak eta Indarguneak alde batetik eta Mehatxuak eta Aukerak bestetik. Analisi honekin batera faktoreen ezberdinen analisisa ere landu da: Teknologia, Ekonomia, Politika eta legeak, Gizartea eta Pertsonak.



Azkenik, HBZNren 2015-2019 plangintza estrategikoa Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu duen 2015-2018 Kudeaketa Estrategikoarekin lerrokatuta izan behar du. Kudeaketa Plan honek helburu zehatzak aurkezten ditu hizkuntza berdintasunaren inguruan:

GFaren 2015-2018 Kudeaketa Estrategikoaren 5. HELBURUAK jasotzen du:

Lehenespenez, bestelakorik adierazi ezean, euskara erabiltzea bultzatzea, bai GFAn eta baita lurraldeko gainerako eragileekin ere, hizkuntza aukerak berdintze aldera eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko.

(Xedea:helburu bakoitzean gutxienez % 80 lortzea eta, batez beste, Euskara Berdintasuneko Zuzendaritzaren 2015-2019 plan estrategikoan finkatutako helburu guztien % 90.

Helburu zehatzagoak ere jasotzen ditu:

1. Aldundian euskara ohiko zerbitzu hizkuntza, laneko hizkuntza eta komunikazio hizkuntza izatera iritsi ahal izateko martxan dauden programak indartu eta hobetzea.
2. Udalekin, hizkuntza sektorearekin eta Gipuzkoako eragile nagusiekin elkarlanean jardutea, politikak lerrokatzeko eta pertsonen hizkuntza aukerak berdintzera bideratutako proiektuak partekatzeko.
3. Berrikuntzarako jarritako baliabideak indartzea, hainbat ikerketa lerro abiarazteko: hizkuntza ulertzeko metodologia bizkorra, autoritate tekniko bat diseinatzea, enpresetako hizkuntza planetarako neurri fiskalak, 10-16 urteko segmentuan euskararen erabilera sustatzeko plan sistematikoa.



3) Helburuak

Hausnarketa estrategiko prozesu honekin bilatu diren helburuak dira:

- Zuzendaritzaren inguruko hausnarketa parte hartzailea bultzatzea.
- Hurrengo urteetarako Zuzendaritzaren lerro estrategikoak, helburuak eta ekintzak zehaztea.
- Planaren jarraipena egiteko sistematika diseinatu eta ezartzea.

Helburu hauek lortzeko bilatu nahi izan diren emaitzak dira:

- Hausnarketa prozesu parte hartzailea egitea, bai GFAko eta baita kanpoko eragileetako partaide kopuru handiarekin (>50 pertsona).
- Plan Estrategikoa guztiz definitzea, lerro, helburu eta ekintzak eta hauen arduradunak zehaztuz.
- Planaren jarraipena egiteko sistematika ezartzea, lehen jarraipen bilera eginez.



4) Metodologia

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren Plan Estrategikoa garatzeko ondorengo plangintza proposatu da Modernizazio Zerbitzutik:

- 1) Proiektuaren plangintza.
- 2) Barne analisia.
- 3) Kanpo analisia.
- 4) Lerro estrategiko, helburu eta ekintzak definitzea.
- 5) Jarraipen metodologia definitu eta ezartzea.

Ondorengo taulan azaltzen dira faseak eta hauetan egin diren ekintzak:



Hizkuntza Berdintasuneko ZNaren Plan Estrategikoa 2015-2019						
FASEAK	EKINTZAK	PARTAIDEAK	HASI	BUKATU	DOKUMENTUAK	ARDURADUNA
0. PLANGINTZA	1. Bilera: abian jartzeko bilera	- Lantaldea: ZN, ZB, 2 AB, 2 Itzultzaile Tek, 2 Normalizazio Tek, 2 Moderniz Tek - Modernizazio ZB	2015-09-01	2015-09-01	bileraren akta 1. Proiektuaren proposamena onartua 2. proiektuko partaideen zerrenda	Modernizazioa
1. BARNE ANALISIA	2. Bilera: ZNaren Ikuspegia berrikustea + Faktoreen araberako azterketa	Lantaldea: ZN, ZB, 2 AB, 2 Itzultzaile Tek, 2 Normalizazio Tek, 2 Mod Tek	2015-09-08	2015-09-08	bileraren akta	Modernizazioa
	3. Bilera: AMIA analisia	Lantaldea: ZN, ZB, 2 AB, 2 Itzultzaile Tek, 2 Normalizazio Tek, 2 Moderniz Tek	2015-09-15	2015-09-15	bileraren akta	Modernizazioa
	Barne Analisia (bulego lana)	Modernizazio Teknikaria	2015-09-15	2015-09-18	3. Barne Analisia	Modernizazioa
2. KANPO ANALISIA	Kanpo Analisia: GFAko Departamentuak eta sindikatuak	5 bilera partaide ezberdinekin (ondoren zehaztuta)	2015-10-08	2015-10-14	bileren aktak	Modernizazioa
	Kanpo Analisia: Diputatu Nagusia	Diputatu Nagusia, Kabinete Burua eta Kudeaketa Estrategikoaren ZN	2015-11-16	2015-11-16	bileraren akta	Modernizazioa
	Eraitzen prestaketa	Modernizazio Zerbitzua	2015-10-14	2015-10-31	4. Kanpo Analisia (GFA)	Modernizazioa
	Kanpo Analisia: Udal teknikariak, Enpresak, hornitzaileak, Euskara Elkartek, Hedabideak, Administrazioak, Sindikatuak	5 bilera partaide ezberdinekin (ondoren zehaztuta)	2015-11-01	2015-11-30	bileren aktak	Attest
	Eraitzen prestaketa	Attest	2015-11-30	2015-12-18	5. Kanpo Analisia (Kanpoko eragileak)	Modernizazioa
	4. Bilera: Zuzendaritzan aurkezpena eta berrikusketa	AB Moderniz Tek Attest	2015-12-23	2015-12-23	bileraren akta	Modernizazioa
3. LERRO ESTRATEGIKO, HELBURU ETA EKINTZAK	Lerro Estrategikoak, Helburu estrategikoak eta Ekintzak identifikatzea (bulego lana)	Modernizazio Teknikaria	2015-12-01	2015-12-18	Lerro estrategikoen proposamena	Modernizazioa
	5. Bilera: Lerro estrategiko, helburu estrategiko eta Ekintzen aurkezpena eta berrikusketa	Lantaldea: ZN, ZB, 2 AB, 2 Itzultzaile Tek, 2 Normalizazio Tek, 2 Moderniz Tek	2015-12-23	2015-12-23	bileraren akta	Modernizazioa
	Plan Estrategikoa prestatzea	Modernizazioa	2015-12-23	2016-01-12	6. Plan Estrategikoa	Modernizazioa
4. JARRAI PEN METODOLOGIA	7. Bilera: Jarraipen metodologia definitu eta ezartzea	Lantaldea: ZN, ZB, 2 AB, 2 Itzultzaile Tek, 2 Normalizazio Tek, Mod ZB, Mod Tek	2016-01-12	2016-01-12	7. Jarraipen Metodologia	Modernizazioa



5) Lan taldeak


Aldundian antolatutako diren lantaldeetan parte hartu duten pertsonak:

	Partaideak	Lanpostua	Departamentua
1	Luzuriaga, Susana	Proiektuak eta obrak gainb. ZB	Bide Azpiegiturak
2	Zufiria, Iñigo	Bide Artapeneko ZB	Bide Azpiegiturak
3	Agirre, Ana	Berdintasuneko ZB	Diputatu Nagusiaren Alorra
4	Jauregi, Irantzu	GT Berdintasuna	Diputatu Nagusiaren Alorra
5	Urmeneta, Xabier	GT Kudeaketa	Diputatu Nagusiaren Alorra
6	Acarreta, Alfonso	Idazkari Teknikoa	Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka
7	Agiriano, Patxi	Haurren eta Nerabeen babeseko ZB	Gizarte Politika
8	Alfonso, Carlos *	Zuzendaria	Gizarte Politika
9	Equiza, Soco	Idazkari Teknikoa	Gizarte Politika
10	Zapiain, Ander	ZB Ezinduen eta Desgaituen Laguntza	Gizarte Politika
11	Sanjuan, Lourdes	AB Giza Baliabideak	Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa
12	Ugarte, Haritz	ZB Modernizazioa	Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa
13	De Pedro, Juan Jose	Idazkari Teknikoa	Ingurumena eta Obra Hidraulikoak
14	Enfedaque, Montse *	BB Ingurumen informazioa	Ingurumena eta Obra Hidraulikoak
15	Zubimendi, Iker *	GT Ingurumena	Ingurumena eta Obra Hidraulikoak
16	Castaño, Joxean	Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko AB	Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola
17	Larrañaga, Esther	Arteleku ZB	Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola
18	Olaetxea, Carlos	GT Arkeologia	Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirola
19	Arana, Alberto	GT Legeak	Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
20	Bergua, Edorta	Bidegorrien plang. eta sustap. GT	Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
21	Juaristi, Sofia	ZB Arkitektura	Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa
22	Azkarate, Mikel	ET Itzultzailea	Ogasuna eta Finantzak
23	Gaztelumendi, Xabier	Erakundeekiko Konpromiso ZB	Ogasuna eta Finantzak
24	Perez, Ana	AB Kalitatearen Kudeaketa	Ogasuna eta Finantzak
25	Perez, M ^a Jesús	Idazkari Teknikoa	Ogasuna eta Finantzak
26	Zabala, Bittori	Zuzendaria	Ogasuna eta Finantzak
27	Lekuona, Arantxa	Kabiako Gerentea	Kabia
28	Arruti, Amaia	LAB	Sindikatuak
29	Sosa, Seni	ELA	Sindikatuak
30	Olano, Markel	Diputatu Nagusia	Diputatu Nagusiaren Alorra
31	Barandiaran, Xabier	Kabineteko burua	Diputatu Nagusiaren Alorra
32	Zurutuza, Sebas	Kudeaketa Estrategikoaren ZN	Diputatu Nagusiaren Alorra

(*) Ez dute bileretan parte hartu, baina beraien ekarpenak idatziz bidali dituzte.



Parte hartu duten barne eragileak





Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusiaren Alorra
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

Kanpo analisisian parte hartu duten eragileak:

Udal Teknikariak

	Partaideak	Erakundea
1	Estepan Plazaola Otadui	Bergarako Udala
2	Eduarne Otamendi Garmendia	Donostiako Udala
3	Iñaki Arruti Landa	Lasarte-Oria Udala

Enpresa eta elkarteak

	Partaideak	Erakundea
1	Ainara Argoitia	Eta Kitto! Euskara elkarte
2	Itxaro Alkorta	AED elkarte
3	Jasone Mendizabal	Topagunea Euskaltzaleen Federazioa
4	Petra Elser	Banaiz Bagara
5	Rober Gutierrez Mateos	Bai euskarari ziurtagiriaren elkarte
6	Iñaki Alegria Loinaz	UEU

Hornitzaileak

	Partaideak	Erakundea
1	Ainhoa Irureta	Ilazki
2	Maite Zipitria	Elhuyar
3	Ainhoa	Emun

Hedabideak

	Partaideak	Erakundea
1	Eduarne Arrillaga	HITZA
2	Mikel Arrieta	Berria
3	Alberto Barandiaran	Hekimen Euskal Hedabideen Elkarte
4	Iñaki Uria	Hamaika Telebista



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusiaren Alorra
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

Beste administrazioak

	Partaideak	Erakundea
1	Eneko Oregi	IVAP
2	Jokin Larrañaga	Arabako Foru Aldundia
3	Josu Lartategi	EUDEL
4	Miren Segurola	UEMA
5	Xabier Arauzo	Osakidetza
6	Joseba Lozano	Eusko Jaurларitza Hizkuntza Politika

Euskararen Foroa

	Partaideak	Erakundea
1	Oskar Elizburu	AEK
2	Maite Asensio Iparagirre	Urtxintxa Eskola
3	Leire Cancio Orueta	Elhuyar Fundazioa
4	Imanol Miner Aristizabal	Kutxabank
5	Ainhara Vazquez Martínez	Bagera
6	Isidro Yoldi Iturbide	Urrats Euskaltegia



6) Xedea, ikuspegia eta balioak

Xedea

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren xedea da bide argi eta eraginkor bat zehaztea hiztunen arteko berdintasuna lortzeko, eta Aldundia nahiz gipuzkoar gizartea ahalduntzea elkarrekin aurrera egin dezaten bide horretan. Xede hori lortzeko, alde batetik euskararen sustapenerako eta normalizaziorako politikak eta planak antolatu eta gauzatzen ditugu; eta, bestetik, itzulpen zerbitzuak eskaintzen dizkiegu Aldundiko departamentuei.

Ikuspegia

Aldundiak lidergoa hartuta, baliabideak jarri eta bermeak eskaini nahi dizkiogu gizarteari, hiztunen artean aukera berdintasuna egon dadin. Hurbileko euskaltasun erakargarri eta indartsu bat osatu nahi dugu, gaztelaniaren erabilera zabal eta nonahikoarekin orekatzeko. Hiztunen arteko berdintasunak hizkuntza aukeren arteko oreka handiagoa eskatzen du.

Balioak

Bi hizkuntza ofizial dituen lurraldea da Gipuzkoa, eta bien arteko bizikidetzak hiru balio nagusitan hartu behar du oinarria:

- **Askatasuna:** esparru ez arautuetan, pertsonak libre izan behar du bere hizkuntza hautua egiteko. Horrek eskatzen du hautuen arteko berdintasuna. Bi pertsonen arteko komunikazioan, bakoitzak berdintasunean gauzatu ahal izango du bere hautua besteak gutxienez ulertzen badu; hau da, hizkuntza simetria posible bada.
- **Berdintasuna:** hiztunen hautuen arteko berdintasuna behar da, benetan libre izatea nahi badugu. Gaztelaniak 500 milioi hiztun ditu, eta Gipuzkoan nahitaez jakin behar den hizkuntza bakarra da. Beraz, presentzia handia du, eta inertzia bere alde. Hori orekatzeko, eta aukera berdintasuna posible izan dadin, euskarari eman behar zaizkio esparru eta funtzio berezkoak, gizartearen aurrean pisua eta prestigioa izango dutenak.
- **Justizia:** hiztunen arteko aukera berdintasuna, finean, justizia kontu bat da. Ez da ahaztu behar azken 80 urteetan atzera egiten badugu, lehen 40etan egon dela euskara debekatuta, eta baliabide asko jarri izan direla bere erabilera murrizteko. Beraz, justua da orain politika berdintzaileak bultzatzea eta baliabideak jartzea euskara berreskuratzeko.



7) Zerbitzuaren amia

Indarguneak eta ahuleziak

Zerbitzuak indargune nabariak ditu. Ardatz estrategikoa dira euskara babesteko garatu den araubide zabal eta eraginkorraren testuingurua eta goi agintarien konplizitatea eta bultzada. Indarra eta zentralitatea areagotzeko kokatu da zuzendaritza Diputatu Nagusiaren alorrean.

Indarguneekin jarraituz, zerbitzuak gainerako sailekin duen harreman sare sakona erantsi beharko genioke langileentzat euskarak duen balio onaren kontsiderazioari eta prestakuntza egokiari. Lan taldeak inplikazioa du, eta esperientzia luzea lankidetzan. 4 lanposturekin sendotu da egitura.

Ahulezien azterketan ez dira gordean gelditu berezko zenbait zailtasun tekniko eta zerbitzuaren ekintzen komunikazioaren urritasuna, zerbitzuaren atal ezberdinen artean baino areago gainerako departamentuekin.

Mehatxuak eta aukerak

Departamentuetako arduradun tekniko eta politikoen balizko inplikazio faltak eta hausnarketa estrategikoen prestigio urriak, plangintzak betetzen ez diren ustea puzten dute. Halaber, komunikazio plan bat ez definitzeak eragileek zuzendaritzaz duten ikusmena eragotzi ere egiten du. Hizkuntza hautu berrien prozesuen nahitaezko epe luzerakotasuna etsigarri bilaka daiteke.

Aukeratzat hartu behar ditugu hizkuntza berdintasunaren aldeko politikak politika publikoetan duen zentralitatea (Eusko Jaurlaritzan nahiz GFAn) eta aldaketa politikoeekin lan sare berriak sendotzeko sortzen diren aukerak.



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusiaren Alorra
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

Aurrez kanpoko eragileekin zeuden aliantza egonkorrak eta zuzendaritzak, oro har, duen kontsiderazio onak lankidetzak aukerak erraztea bultzatzen du, eta hizkuntza kudeaketan erreferente izatea.

Herritarrek dute esperantza GFaren hizkuntza politiketan eta diskurtso berrien guztienganako irispidetasuna ere ez bairik ez duten indarguneak dira.



8) Faktoreak

	FAKTOREAREN DEFINIZIOA	GIZARTEARENGAN ERAGINA	DEPARTAMENTUARENGAN ERAGINA
FAKTORE POLITIKO-LEGEKILEAK	Beste administrazioekin lankidetzak	Irudia hobetzea	Baliabideak optimizatu.
	Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Normalizazio Plana 2018	GFArekin euskaraz harremana izateko aukera izatea eta euskarari bultzada.	Administrazioan ematen diren kudeaketa guztiak euskaraz izatea. Administrazio Elektronikoko baliabide guztietan hizkuntza kontuan hartzea HE berraztertzea?
	Erabaki politikoak	Politika eta zerbitzuetan aldaketak.	Estrategia aldaketak egiteko beharrezko egokitzapena egitea. Oraingo Normalizazio planaren aldaketa Zehar lerrotasun politika ezartzea? Kudeaketa Aurreratuarekin bat egitea.
	Normalizazio plana 2013-2017 (kontratazioa)	---	Irizpideak finkatzea/martxan jartzea
	Berdintasun Foru Araua	Gizartean berdintasuna bultzatzea	Administrazioan berdintasunaren irizpideak integratu eta bultzatu behar dira. Teknikari berrien papera.
	Udal Legea	Herritarren eskubideak errespetatzea / urratzea	Legearen egokitzapena egitea arlo guztietan
	Hizkuntzen inguruko adostasun sendoak	Irudia hobetzea, lidergoa sendotzea	Gorabeherak ez izatea
	Elkarreragingarritasun hitzarmenak (Eusko Jaurlaritza Aldundiekin / GFA Udalekin)	Tramiteak aurreztea	Herritarrek eman dituzten datuak berriz ez eskatzea Beste administrazioekin informazio-trukaketa (sistema informatiko aurreratuak, datu baseak, eta abar)
	Gardentasun foru araua	Administrazioek duten informazio publikoa eskuratzeko eskubidea izatea	Eskubide hori bermatu beharko da Nahitaez kaleratu behar den informazio egongo da
	Administrazio Elektronikoko legearen aplikazioa + Herritarrekin bitarteko elektronikoen bidez harremanetan jartzeko Foru Dekretua	Tramiteak erraztea, azkartzea, erosotasuna	Legea garatu beharra: tramite guztiak elektronikoki egiteko aukera Espediente Elektronikoa ezartzea

*Urdinez jasotzen dira Modernizazio Zerbitzutik egindako ekarpenak



	FAKTOREAREN DEFINIZIOA	GIZARTEARENGAN ERAGINA/	DEPARTAMENTSUARENGAN ERAGINA
FAKTORE EKONOMIKOAK	Kontrola handitzea	Diru publikoaren kudeaketa hobea Kanpoko irudia hobetzea	Adierazleak eta irizpideak finkatzea Dedikazioa
	Departamentuko aurrekontu propioaren hazkundera: zoru bat finkatu % 1	Zerbitzuak handitzea eta kalitatea hobetzea	Inbertsioak egin Baliabideak berriak sortu Diru-laguntzak handitu
	Merkatuan zerbitzuak daukan eragina	Profesionalen gaitasunaren balioaren aitortza hobetzea.	

	FAKTOREAREN DEFINIZIOA	GIZARTEARENGAN ERAGINA	DEPARTAMENTSUARENGAN ERAGINA
FAKTORE TEKNOLOGIKOAK	Interneten garapena: - Sare sozialak - Teknologia mugikorak - Software librea - Plataforma kolaboratiboak: wikiak, elkarlana.. - Udal<>ekin - Ika-Mizka	- Bretxa digitala: herritar batzuk ezin izango dituzte baliabideak eskuratu - Herritarren eta aldundiaren arteko harremanak hobetzea	- Aldaketa hauetara egokitu behar da - Sare sozialen garapena herritarrek administraziora hurbiltzeko - Teknologia mugikorak garatu behar dira - Barruko lankideen prestakuntza - Irizpide argiak izatea
	Administrazio elektronikoa: - Tramite elektronikoa - Espediente elektronikoa eta hizkuntzen kudeaketa - Web ingurunea: Gipuzkoaeuskara, Udalekin - Ebaluazioa	- Tramiteak elektronikoki egiteko eskaerak gora egingo dute - Bretxa digitala: herritar batzuk ezin dituzte baliabideak eskuratu - Herritarren eta aldundiaren arteko harremanak hobetzea - Teknologia berrien ezagutza eta zabalkundera herritarren artean	- Tramiteak elektronikoki egiteko eskaerei aurre egin beharko diegu - Teknologia berriak eragitea - Sinadura elektronikoen inguruan aldaketak gertatzen ari dira - Prozedura administratiboaren lege berria - Barruko lankideen prestakuntza
	GFAko aplikazio informatikoak berritzearen beharra: - Itzulpen gintza: trafikoa, programak, memoriak, itzulpen automatikoa... - Ebaluaziorako aplikazioak - Diru laguntzen aplikazioa	Administrazioarengandik jasotako zerbitzu elektronikoa desegokiak izatea (zaharkituak, motelak, formatu ez bateragarriak...)	- Aplikazio informatikak berritu, bateragarri bihurtu eta eguneratu. - Barruko lankideen prestakuntza
	IZFE		



	FAKTOREAREN DEFINIZIOA	GIZARTEARENGAN ERAGINA	DEPARTAMENTSUARENGAN ERAGINA
FAKTORE SOZIALAK	Aldundiaren irudia krisia ondoren	Herritarrek Aldundiari eskatzen diote eraginkorra izan dadila	- Prozedurak aldatzea, irudia hobetzea, teknologia hobetzea, motibazioa, - Zerbitzuak herritarren beharrei egokitzea
	Krisiaren ondorioz herritarren beharrak aldatu dira? Zer espero dute gugarandik?	Herritarren zerbitzu berriak eskatzen dituzte, behar berriak betetzeko (krisiak sortutako beharrak, teknologiaren garapenak sortutako beharrak, kulturalak...)	Adi egoteko beharra, malgutasun handiagoa baliabideetan.
	Zuzendaritzaren lidergoa	Hizkuntza kontutan, gizartearen badago despistea, nekea, etsipena	GFA erreferentzia politiko indartsua izan daiteke
	Enpresa eta elkarrekin harreman handiagoa eta eragin handiagoa gure politiketan		- Enpresa eta elkarrekin harremanak areagotu
	Herritarrekiko komunikazioa		
	Herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute parte hartzea Aldundiaren erabakietan (parte hartzearen kultura)	Gizartea Aldundiaren erabakietan eta proiektuetan gehiago inplikatzea	Parte hartze prozesuak lantzeko metodologiak ezarri eta barruko prozesuak ere martxan jarri
	Herritarra eta herritarren ordezkari diren erakunde, elkarte eta gainerako ondo bereiztea, batik bat eskubide eta bete beharren aldetik		
Desmotibazio faktoreak: - Karrera administratiboa bultzatzeko oztopoak - Langile interinoen segurtasun eza	Langileen desmotibazioa Desmotibazioak zerbitzuetan eragin negatiboa izan dezake	Langileen desmotibazioa kudeatu beharra	

	FAKTOREAREN DEFINIZIOA	GIZARTEARENGAN ERAGINA	DEPARTAMENTSUARENGAN ERAGINA
PERTSONAK	Lanpostuen funtzioak eta balorazioa		BAI: Funtzioak argitzea eta norberaren lana balioestea. EZ: Langileen desmotibazioa Desmotibazioak zerbitzuetan eragin negatiboa izan dezake
	Lanpostuen hautaketa eta kobertura		
	Zerbitzuaren egitura eta etorkizuna		Egonkortasuna handitzea
	Prestakuntza eta garapen profesionala		Ezagutza eta jardura handitzea,
	Komunikazioa hobetzea eta faktore emozionalak kontuan hartzea.		Laneko giroa eta harremanak hobetzea

*Urdinez jasotzen dira Modernizazio Zerbitzuetik egindako ekarpenak



9) Lerro estrategikoak

LERRO ESTRATEGIKOAK:

1. Lidergo instituzionala
2. Beste eragileekin koordinazioa
3. Euskararen erabilera Gipuzkoan
4. Euskarazko merkatua eta kanpo komunikazioa
5. Euskararen erabilera GFAn
6. Barne komunikazioa eta parte hartzea GFAn
7. HBZNk eskaintzen dituen zerbitzuak indartzea eta hobetzea
8. Berrikuntza



10) Lerroak, helburuak eta ekintzak

1. Lidergo instituzionala

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
1.1 Hizkuntza berdintasunean lidergoa erakustea	Hizkuntza berdintasunean lidergoa izatea: diskurtsoan eta jende aurrean.	Berdintasunaren diskurtsoa hedatuko da erakundean eta eledunen bidez gizartean
	HBZNren Plan Estrategikoa eta GFarena lerrokatzea	Plan honen lanketa horrela ari da egiten eta bere garapena helburu horretara dago bideratua
	Beste erakunde batzuen aurrean eredugarri eta aitzindari izatea (Bizkaiko eta Arabako Aldundien aurrean, HPSren aurrean,...)	HAKOBAREN baitan, Euskarabidearekin eta E.E.P.rekin bateratuko dira estrategiak
1.2 Arduradun politikoen ahalmentze linguistikoa lantzen jarraitzea	UDALAK: Herritako arduradun politikoen ahalmentze linguistikoa lantzen jarraitzea.	Udal<>ekin programaren baitan bigarren ildoan garatuko da hautetsientzat, eta ekimen bateratuak antolatuko dira hautetsi eta teknikarientzat
	GFA: Aldundiko arduradun politikoen ahalmentze linguistikoa lantzea. (Diputatuak, Zuzendariak)	Ahalduntze programa berezia prestatuko da arduradun politikoen hizkuntza portaerek berdintasuna sustatu dezaten
1.3 GFAn zeharkakotasuna lortzea	Zeharkakotasuna lantzea GFA barruan KPEn	BIKAIN kudeaketa sistemaren ezarpenarekin hizkuntza helburuak erakunde osoarenak bihurtuko dira
	GFako Departamentu guztien aurrekontuak aztertu hizkuntza irizpideak non landu daitezkeen identifikatu eta Departamentuekin batera lantzeko (KPE)	Aldundiaren aurrekontu osoan hizkuntza irizpideak txertatuko dira modu progresiboan



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusiaren Alorra

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
1.4 Akordio Politiko berri eta zabal bat lortzea	Akordio zabala lortu behar da, adostasun berri bat lortu behar da berriro ere, orain dela 30 urte lortu zen bezala. Akordioak lortuz gero, blindatu egin behar dira ez aldatzeko.	Diputatu nagusiak adierazi du zuzendari nagusia helburu honekin izendatu zela, eta planaren filosofian oso presente daude akordioa eta blindajea



2. Beste eragileekiko koordinazioa eta parte hartzea

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
2.1 Erakunde publiko eta pribatuen arteko koordinazioa lantzea: Udalen arteko sinergia eta 3 Aldundi, EJ eta gizarte eragileekin batera zer edo zer egitea: Akordio Soziala	Hizkuntza politikan erakundeen arteko koordinazioa bultzatzea	HAKOBaren baitan, Euskarabidearekin eta E.E.P.rekin bateratuko dira estrategiak
	Ekosistema minimo bat lortzea	
	Akordio soziala lortu nahi bada eragile desberdinak jasotzen duen gunea/k behar da. Agian lehen pausoa Gipuzkoan egin daiteke eta hortik handitzen joan. Politikoa+Eragile sozialak (Nafarroa eta Iparralde kontutan edukita)	Gipuzkoan zubiak eraikitze ahaleginean ari da HBZN eta norabide horretan egingo da lan legegaldian, akordio sozialik handiena lortzeko helburuarekin
2.2 Udalak-Bailarak-Aldundia arteko koordinazio/antolaketa indartzea	EJ, Aldundia, Udalak eta Gizarte eragileen arteko eginkizunen banaketa egin eta koordinazioa hobetu.	HAKOBAn egingo dira proposamenak norabide honetan eta gizarte eragileekin hasteko den parte hartze prozesuan ere jorratuko da gai hau
	Udalak-Bailarak-Aldundia arteko koordinazio edo/eta organizazioa indartu beharra	Udal<>ekin programaren baitan txertatuko da helburu hau
2.3 Euskara foroa	Aldundia eta Udalak dituzten fluxu guztien azterketa egin hizkuntza lantzeko aukera aztertzeke. fluxu edo erlazio Mapa ateratzea.	Udal<>ekin programaren baitan txertatuko da helburu hau
	Euskara foroa eraginkorragoa bihurtzea	Euskararen Foroa urtean bitan bilduko da, maiatzean eta azaroan, sektorearekin landuko den bilakaera kontrastatzeko
2.4 Gizartea, Gardentasuna eta Parte hartzea	Hizkuntza Berdintasuna Zuzendaritza koherente izatea.	Batzar Nagusiek eta Euskararen Foroak emango dute kontrastea
	Hizkuntza planifikazioan, metodologia parte hartzaileak handitzea. Interes Taldeen kontzeptua euskara planetan sartzea.	2016an burutuko den partaidetza prozesua (diseinatzea, emaitzak Euskararen Foroan kontrastatzea eta ondoren aurrekontuetara eramatea) arrakastatsua izatea bilatuko da, hurrengo urteetan ere errepika dadin



3. Euskararen erabilera Gipuzkoan

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
3.1 Gipuzkoako eragile nagusiekin elkarlanean, politika lerrokatzea	Beste erakundeek (Bidegi, Kabia,...) hizkuntza inguruan duten potentziala erabiltzea.	Aldundian ezartzen den BIKAIN dinamika hedatuko da bere mendeko erakundeetara
	Enpresetan hizkuntza planak aurrera eramateko neurri fiskalak bilatzea.	Hizkuntza planei pizgarri fiskalak jartzeko modua bilatuko da Ogasunarekin
3.2 Herritarren eskubideak lantzea	Kontsumitzaileen hizkuntza erabileraren eskubideak erakundeen beharrak bihurtzea.	Aldundiak aitortua die herritarrei hizkuntza hautatzeko eskubidea, ildo hori sakonduko da
	Herritarren artean dauden desberdintasunak gainditzea.	Aldundiaren plan estrategiko nagusian dago jasota helburu hau, erakunde osoaren eginkizun gisa
	Elkarbizitza lantzea. Berdintasunaren printzipioan didaktika-pedagogia egitea.	Kabinetearen baitan zeharkako politika publikoen kudeaketa bateratua bultzatuko da (hizkuntza eta genero berdintasuna, bizikidetza, gazteria...)
	Etorकिन euskararen erabilera kudeatzea eta sustatzea.	Bizikidetza zuzendaritzarekin landuko da proposamen zehatza
3.3 Gipuzkoako eragile nagusiekin elkarlanean, pertsonen hizkuntza aukerak berdintzeko proiektuak partekatzea	Arlo sozioekonomikoaren euskalduntzerako lau eragileekin batera lanketa beharra dago: Administrazioa, Gizarte eragileak, ADEGI (lanketa jarrai bat enpresetan lan hizkuntza lantzeko) eta Sindikatuak	Lidergo partekatuaren ikuspegitik, GFA lurraldeko eragile sozioekonomikoekin sarean jardungo da euskara gero eta normalago 'defektuz' erabiltzen
	GFA Kutxabankeko administrazio kontseiluan dago: hizkuntza erabileran trakzio egiteko bankuaren potentziala erabiltzea.	2007-2011 legealdian bi erakundeon artean sinatutako hitzarmena berreskuratuko da eta berriro gauzatze bidean jarriko
	Unibertsitate mailan euskara erabilera aztertzea eta bultzatzea.	Ika-Mizka ekimena sendotuko da



Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
3.4 Euskararen prestigioa sustatzeko, erreferentziazko pertsonak identifikatzea eta lantzea	Politikoak, enpresa mundukoak, bertsolari gazteak, kirolekoak,... (etorkinak barru): zeregin handia dago hemen. Diskurtso politiko propio eta koherente bat sortu beharra dago.	Diskurtso politiko berritua bidea ari da egiten gizarteko esparru desberdinetan eta ildo horretan sakonduko da
	Norbanakoak eta kolektiboak (elkarte, erakunde,...) hizkuntza kontuetan ahalduzko erreferentziazko guneak eta dinamikak eskaintzea.	Partaidetza prozesuan jorratuko da
	Euskarazko komunikazio hedabideetan lehen agerraldia egitea.	Aldundiaren komunikazio planean txertatuko da euskarazko hedabideei lehentasuneko tratua ematea
3.5 Euskara esparru soziologiko berrietara zabaltzea		Ikerketan berariaz landuko da irekitasuna
3.6 Euskara gune berrietara eraman behar da	Adibidez, kontsumoa dagoen tokietara, hain zuzen merkataritza gune handietara. Beste arlo garrantzitsu batzuk dira erreprodukzio guneak: telebista, irratia... Telebistaren kasuan, euskarazko ekoizpenean esfortzu handiak egin behar dira nerabeentzako material espezifikoak sortzen.	Orain arte gabonetan merkataritza guneetan egindako ahalegina ebaluatuko da eta hobetzeko bideak aztertuko. Irrati edo telebistan euskarazko ekoizpenak -dagoeneko egiten direnak edo egin daitezkeenak- txertatzeko aukera sektorearekin aztertuko da partaidetza prozesuan
	Euskararen erabilera sustatzeko erregistro berrien beharra dago.	Partaidetza prozesuan jorratuko da
3.7 Euskararen erabilera sinbolikoa	Oihartzuna lortzea	Aldundiaren komunikazio planean txertatuko da euskarazko jardueri arreta eskaintzea
	Erakundeak ateratzen dituzten aldizkariak nola joan behar diren aztertzea (ez elebitasun simetrikotan)	Aldundiaren komunikazio planean finkatuko da euskarari lehentasuna emateko irizpidea
	Aurkezpen publikoak lantzea	“Jendaurrean erabili” egitasmoan parte hartuko du Aldundiak eragileen komunitate sendo baten baitan



4. Euskarazko industria eta hedabideak

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
4.1 Euskarazko merkatua sortzea eta bultzatzea	Euskarazko eskaintza zabaltzea.	Partaidetza prozesuan txertatuko da
	GFAk duen euskarazko produktuen kontsumoa handitzea.	Bitartekaritza eta lan 'komertziala' egingo da, bereziki Aldundiaren ekonomia suspertzeko planetan –eta, oro har, aurrekontuetan- hizkuntza sektoreak izan dezan bere neurriari dagokion pisua
	GFAREN laguntza EJko Kultur industrien lantaldean euskara ere bere lekua eduki dezan.	HBZnK zubi lana egingo dio sektoreari eta aldundiaren baitan, eta baita beste erakundeekin ere
	GFAk publizitatea bateratzeko aukera lantzea.	Aukera landuta dago eta 2016an zehar jarriko da indarrean politika berria
4.2 Euskalgintza sektorearen garapen ekonomikoa ziurtatzea	Euskalgintzaren berrantolaketa beharra lantzea.	HBZnK abiatuko duen partaidetza prozesuak bi helburu ditu: egiteko moldeak berritzea, egindakoa eraginkorragoa izan dadin; eta hizkuntzaren ohiko jardun mugak gainditzea, esparru irekian lehiatzeko
	Euskalgintza sektorea Gipuzkoan garrantzi handikoa da. GFAko Garapen Ekonomiko Sailak tratamendu bat eman dezake, sektore industrial bezala.	Bitartekaritza eta lan 'komertziala' egingo da, bereziki Aldundiaren ekonomia suspertzeko planetan –eta, oro har, aurrekontuetan- hizkuntza sektoreak izan dezan bere neurriari dagokion pisua
4.3 Hornitzaileen artean elkarlana bultzatzea	Hornitzaileak elkar lehia egon beharrean elkarrekin lanean jartzea.	
4.4 Hedabideen sektorearekin kontraste lana handitzea	Hedabideen sektorearekin kontraste lana handitzea (kontraste mahai bat sortu: proiektuak, ideiak lantzeko).	Partaidetza prozesuan txertatuko dira helburu hauek
	Negozio eredu berriaren beharra aztertzea, krisian dagoen sektoreak eraldatzearen erronka dauka.	



5. Euskararen erabilera GFAn

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
5.1 Euskararen erabiltzea bultzatzea (Normalizazio Plana 2014-2017)	Euskarazko atalen definizioa berraztertzea.	BIKAINen ezarpenarekin egingo da
	Euskarazko atalen helburuak ondo identifikatzea.	
	Euskarazko atalei jarraipen zerbitzua ematea.	
	Euskarazko atalei trebakuntza eskaintzea, bai taldean, bai banaka.	
5.2 Barne hiztunen arteko berdintasuna sustatzea (Normalizazio Plana 2014-2017)	4.HE duten lanpostu batzuen betetzeko irizpideak aztertzea.	HPSrekin batera landuko da
	Aginte lanpostu guztietan 4 HE derrigortasuna berraztertzea. Lanpostu bakoitzaren beharren arabera izan beharko litzateke.	HPSrekin batera landuko da
	Aginte lanpostuetan dauden pertsonen inplikazioa berreskuratzea/ lortzea (tarteko arduradunek erabateko garrantzia dute haien mendeko langileei jakinarazteko zeintzuk diren zerbitzu edo unitatean hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak) transmisioa egiteko.	BIKAINen ezarpena erabiliko da helburu hau lortzeko
	Barneko lanpostuen lehiaketetan 4.HERen eskakizuna berraztertzea.	HPSrekin batera landuko da
	GFAn prestakuntza defektuz euskaraz ematea.	Dagoeneko abiatuta dagoen dinamika indartuko da
	<i>Fundación Tripartita</i> eta Hobetuzetik ematen den prestakuntza euskaraz eskaintzeko aukera aztertzea.	Funtzio publikoko zuzendaritzarekin landuko da
	HERen estruktura teorikoa (lanpostuetan) eta errealaren arteko interfazea berraztertzea.	HPSrekin batera landuko da
	Ulermen gutxieneko bat landu beharra orokorrean	HABErekin batera landuko da



Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
	<p>lana euskaraz egiteko etenik egon ez dezan.</p> <p>HEren eskakizunetan koherentzia mantentzea</p> <p>Belaunaldi ordezkapena dela eta hizkuntza gaitasuna ziurtatzeko adostasun politiko-sindikal bat behar da. Langileen ordezkariak direlako eta gizartearekin erantzukizuna dutelako nagusiki sindikatuekin adostasuna bilatu behar da. Profilen politika teknikoki berrikusi behar da, baina adostasun politiko bat ere behar da.</p> <p>Langileen hautaketa prozesuetan euskaraz "bakarrik" egiten diren azterketak jartzeko aukera berraztertzea.</p>	<p>HPSrekin batera landuko da</p> <p>Funtzio publikoko zuzendaritzarekin landuko da</p>
<p>5.3 Euskara ohiko zerbitzu hizkuntza izatea. DEFECTUZ EUSKARAZ (Normalizazio Plana 2014-2017)</p>	<p>Herritarrekin harreman zuzena daukaten enpresek zerbitzua euskaraz emango dutela ziurtatzea.</p> <p>Herritarrekin harreman zuzena daukaten langileek zerbitzua euskaraz emango dutela ziurtatzea.</p> <p>Arreta zuzena ematen duten langileek zerbitzua euskaraz emango dutela ziurtatzea.</p> <p>Aldundiaren defektuzko funtzionamendua euskaraz izan behar du eta beharra badago, gero gaztelaniara itzuli.</p> <p>Diskurtsoa eginkizunekin lotzeko ekintzak aurkitu/sortu behar dira.</p>	<p>BIKAINen ezarpenarekin bideratuko da</p> <p>Aldundiaren komunikazio sistema berriaren baitan, HBZNren agerkari digitalak berrituko dira eta interaktiboagoak bihurtuko.</p>
<p>5.4 Hizkuntza irizpideak kontratazioan</p>	<p>Hizkuntza irizpideak GFAn, Udalen eta erakunde publikoen kontratazioan garatzea.</p> <p>Departamendu guztietatik banatzen diren diru laguntzen banaketan hizkuntz irizpideak aplikatzea.</p>	<p>HAKOBaren baitan landuko da</p> <p>Egitasmo zehatz bat landuko da</p>



Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
5.5 HBZNren egituraren hausnarketa	HBZNren egituraren hausnarketa egitea.	<p>Lantaldean errelebo handia dator (lau erretiratu 5/6 urteko epean) eta beharrezkoa da aurreikuspenak egitea. Zainduko da zein den denboraren joanean lanaren bilakaera eta taldearen neurri egokia, eta horren arabera erabakiko da ea erretiroa hartutako guztiak ordezkatu behar diren ala ez.</p> <p>Trebatzaileen kontratua berrikusi egingo da, eraginkortasunaren bila.</p> <p>GFaren enplegu eskaintza sustatuko da lanpostuei egonkortasuna emateko; eta bitartean lan poltsak eskatuko dira, zerrendak eguneratzeko</p> <p>Lantaldean arduren banaketa finduko da; tartean, diru laguntzen kudeaketa arinduko zaio zerbitzuburuari, eta idazkariaren eginkizuna areago lotuko zaio zuzendariari.</p> <p>BIKAIN ezartzeko laguntza modura erakunde barruko ebaluatzaileak aktibatuko dira (departamentuei arduradun bana eskatuta) eta, gehiago behar izango balitz, kanpo zerbitzua kontratatuko da.</p> <p>Aztertuko da ea normalizazioa eta itzulpena zerbitzu bakarrean mantendu behar diren, ala bi zerbitzutan banatuta harremanak hobetuko liratekeen.</p>



Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
5.6 Euskara laneko eta komunikazio hizkuntza izatea (Normalizazio Plana 2014-2017)	Departamentu bakoitzaren egoera eta behar ezberdinak identifikatzea hizkuntza inguruan.	BIKAINen ezarpenarekin bideratuko da
	Departamentu edo zerbitzu bakoitzari helburu egokituak jartzea.	
	Departamentu bakoitzean lanpostu gakoak identifikatzea, hauekin euskararen aldeko lan berezia egiteko.	
	Zuzendari lanpostuetan HE ezartzeko aukera aztertzea.	
	Prestakuntza ikastaro teknikoak euskaraz antolatzea.	BIKAINen ezarpenarekin hobetuko da
	Euskara erabiltzeko irizpide garbiak jartzea eta langile guztiei ondo zabaltzea.	
	Departamentuetan hizkuntzaren inguruko lantaldeak osatzea arlo teknikoak lantzeko eta gero helburuak eta ekintzak ondo helarazteko.	
	Lan baliabide "guztiak" euskaraz egoteko pausoak ematea.	
Lan ohiturak eta jarrerak aldatu behar dira, modu baikorrean, bestela kontrako jarrerak edo oztopoak aurkituko dira.		



6. Barne komunikazioa eta parte hartzea GFAn

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
6.1 Hizkuntza Batzordeen funtzioak berraztertzea	Batzordearen antolaketa eta helburuak berraztertzea.	BIKAINen ezarpenarekin bideratuko da
	Euskara Plana betetzeko Zerbitzutik ematen den laguntza hobetzea.	
	Departamentuetako batzordeei lidergoa ematea, zerbitziburuen inplikazio handiagoa lortzeko.	
	Euskara sustatzeko proiektuen jarraipena hobetzea.	
6.2 Normalizazio planaren sozializazioa egitea (Normalizazio Plana 2014-2017)	Normalizazio Planaren aurkezpena egitea.	BIKAINen ezarpenarekin bideratuko da
	Parte hartzea bultzatzeko Normalizazio Planaren inguruan iritziak jasotzea.	
	Erregulazioaren aldeko ahalegina lasaitzea eta lantokietan euskara erabiltzen duten zerbitzu eta pertsonen adibidea zabaltzea.	
	Normalizazio Planaren helburu eta ekintzen egokitzapena egitea.	
	Normalizazio Plana ezartzeko metodologia eta sistematika berraztertzea.	
	Normalizazio Planaren jarraipen sistematikoa diseinatzea.	
6.3 Hizkuntza eskakizunak vs erabilera	Helburua gaitasunetan jarri da, ez erabileran. Profilak egiaztatu nahi ditugu edo hizkuntza erabilera egiaztatu nahi dugu?	Hizkuntza erabilerari lehentasuna emango zaio, eta HPSrekin batera ebaluatuko da orain arteko arautegia
6.4 Langileen arteko komunikazioa indartzea	Barne komunikazioa indartzeko tresna berriak erabiltzea.	HBZNren agerkari digitalak berrituko dira eta interaktiboagoak bihurtuko.



7. HBZnK eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzea eta indartzea

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
7.1 Trebakuntza programa eraginkorragoa izatea	Ahozko komunikazioari garrantzi gehiago ematea.	Funtzio publikoko zuzendaritzaren landuko da
	Taldeko trebakuntza martxan jartzeko zerbitzuaren egoera eta beharren azterketa egitea.	
	Taldeko trebakuntza bultzatzea zailtasun teknikoak argitzeko espezializazioak kontuan hartuta.	
	Banakako trebakuntza mantentzea.	
	Programan parte hartzen dutenen jarraipen sistematikoa egitea, erabilera neurtzeko.	
7.2 Nola zerbitzua ezagutaraztea	Nola zerbitzuaren sustapen kanpaina bat egitea.	BIKAINen ezarpenarekin bideratuko da
	Zerbitzu berriak abian jartzea: saio puntualak, mintegiak, betiko galderak eta akatsak,...	
	Teknologia berriak erabiltzea zerbitzua hobetzeko (lan taldeak sortu, erabiltzaileen komunitateak, eta abar).	
	Erakunde autonomoetara zabaltzeko aukera aztertzea.	
7.3 Kudeaketa Aurreratua ezartzea	Kudeaketa arloan irizpideak finkatzea.	BIKAINen ezarpenarekin bideratuko da
	Zeharkako gaietan (euskara, berdintasuna, parte hartzea, eta abar) lantalde tematikoak sortzeko aukera aztertzea.	Politika publikoak integratzeko egitasmoaren baitan helburu hau ere aztertuko da
	Kudeaketa arloan teknikarien prestakuntza handitzea.	Aurrerabide Egiten-Ikasi prestakuntzan parte hartzea eta KPAE ezartzea



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusiaren Alorra

Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	Ekintzak
7.4 Itzulpen Zerbitzua eraginkorragoa izatea	Baliabide informatiko eta teknikoak hobetzea	Aldundiak barne kudeaketarako jarriko duen tresna informatiko berrian hizkuntza helburuak ere txertatuko dira.
		Itzulpenak kudeatzeko aplikazioa jarriko da, informazio estatistikoa eta segurtasuna areagotzeko, eta itzulpen lana hobetzeko tresnak eskuratuko dira
		Aldundiaren hainbat erabileretan dokumentu elebakarrak askietsiko dira, eta horren arabera arautuko da zer itzuli behar den eta zer ez
		Interpretazio lanen antolaketa finduko da, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko
7.5 Diru laguntzak	Beste departamentuetako diru laguntzetara aurkezteko aukera irekitzea.	Egitasmo zehatz bat landuko da helburu hau lortzeko
	Finantzaketa lerro berriak lortzea.	
	Fiskalitatea ere landu daiteke.	Partaidetza prozesuan jorratuko da
	Hizkuntza teknologia lantzeko diru laguntza propioa ateratzea	
	Diru laguntzetan Administrazioen arteko politika bateratu baten beharra dago.	
Euskalgintzarekin helburuak eta diru laguntzen oinarriak lantzea.	Partaidetza prozesuan jorratuko da	
7.6 HBZNren zerbitzu eskaintza ezagutaraztea	HBZNren zerbitzu eskaintza gizarteratzea.	Hizkuntza gaien komunikazio atal bat landuko da, aldundiaren komunikazio planaren baitan



8. Berrikuntza

Helburu estrategikoak	Helburu zehatzak	
8.1 Baliabideak indartzea	GFaren aurrekontu propioaren % 1 lortzea.	Helburu hau bilatuko da edo zuzendaritzaren aurrekontu zuzena handituz edo aurrekontu orokorrean eraginez
8.2 Ikerketa lerro berriak sustatzea	Talde multidisziplinarrak gaika sortzea ikerketa eta garapena, esperimentazioak egiteko.	Partaidetza prozesuan jorratuko da
	Hizkuntza ulertzeko metodologia bizkorra aztertzea.	HABErekin landuko da egitasmo hau
	Autoritate tekniko bat diseinatzea.	Soziolinguistika Klusterrarekin hitzartuta dago
	10-16 urteko gazteen segmentuan euskararen erabileran sustatze plan diseinatzea.	Soziolinguistika Klusterrarekin hitzartuta dago
	Administrazio digitaleko sorguneetan hizkuntza berdintasuna bermatzea.	Partaidetza prozesuan jorratuko da
	Arnasgune artifizialak sortzeko proiektu pilotuak martxan jartzea.	Partaidetza prozesuan jorratuko da
	Hizkuntza esperientziak saretzea, garatutako lanetatik sortutako materialari etekina ateratzeko.	Partaidetza prozesuan jorratuko da



11) Ekintzen lerrokadura eta testuingurua kudeaketa plan estrategikoan

Zuzendaritzaren talde gidariak legealdiko ekintzak zehaztu eta xehatu ditu, GFaren Plan Estrategikotik abiatuta. Erakundearen legealdiko Plan Estrategikoan hizkuntza berdintasunari dagokion helburu nagusia honela dago idatzita:

5. HELBURUA. Lehenespenez, bestelakorik adierazi ezean, euskara erabiltzea bultzatzea, bai GFAn eta baita lurraldeko gainerako eragileekin ere, hizkuntza aukerak berdintze aldera eta hiztunen arteko berdintasuna sustatzeko (Xedea:helburu bakoitzean gutxienez % 80 lortzea eta, batez beste, Euskara Berdintasuneko Zuzendaritzaren 2015-2019 plan estrategikoan finkatutako helburu guztien % 90)

Ondoren, hiru lan ildo zehazten dira Planean euskara 'defektuzko' hizkuntza izan dadin, eta ildo horien arabera finkatuko dugu zuzendaritzaren legealdiko jarduera.

Aldundiari begira

Aldundian euskara ohiko zerbitzu hizkuntza, laneko hizkuntza eta komunikazio hizkuntza izatera iritsi ahal izateko martxan dauden programak indartu eta hobetzea.

Erakundearen jarduera guztietan euskara ohiko hizkuntza izango bada, lortu behar da hizkuntza aldagaiaren kudeaketa departamendu eta atal bakoitzaren ardua izatea, betiere HBZNren laguntza eta kontrolarekin. Eta, egitura osoak sistema bat bezala lan egin dezan, ezinbestekoa da plangintza eta kudeaketa tresna bakarrarekin lan egitea.

Zentzu horretan, aurrekari ona da BIKAIN ziurtagiria lortze aldera 2007-2011 legealdian egin zen ibilbidea. Eta jakin berri dugu HPSk udaberrian moldatu nahi duela kudeaketa sistema hori bereziki herri administrazioei begira, ea tresna bakar batekin ordezkatu daitezkeen orain arteko plangintza eta ebaluazio metodoak.

Gauzak horrela, HBZNk BIKAIN berriaren egitasmoaren alde egiten du, eta bere partaidetza eskaini dio HPSri moldaketa prozesuan. Izan ere, tresna ezin hobea da erakundearen egitura osoa modu sinkronizatuan abiatzeko 'defektuz' euskaraz jarduteko norabidean. Bidea egin ahala neurtuko da ea egingarri den legealdi barruan GFak ziurtagiriaren urrezko maila lortzea.

Aldundiari begira, ondorengo ekintzak burutuko dira:

Orokorrak

- Hizkuntza Batzordea (HIZBAT) izango da lankidetzara gune nagusia GFA osorako
- Prestakuntzan euskarazko eskaintza bermatzeko laguntza emango zaio Funtzio Publikoari
- GFaren hornitzaileetan elebitasuna sustatu eta lehenetsiko da, haien eskaintza euskarara eramateko
- HBZNk aldundiaren aurrekontuaren % 1eko zoru egonkorra legealdian lor dezan ibilbidea finkatuko da.
- Aldundiaren aurrekontu osoan hizkuntza irizpideak txertatuko dira modu progresiboan
- Berrikuntza eta ekonomia atalekin lankidetzan aritzea lehenetsiko da



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusiaren Alorra
Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia

- Kabinetearen baitan zeharkako politika publikoen kudeaketa bateratua bultzatuko da (hizkuntza eta genero berdintasuna, bizikidetzeta, gazteria...)
- Lurralde antolamenduan ELE (eragin linguistikoaren ebaluazioa) adierazlearen erabilera sustatuko da.

Teknologia

- Aldundiak barne kudeaketarako jarriko duen tresna informatiko berrian hizkuntza helburuak ere txertatuko dira.
- Itzulpenak kudeatzeko aplikazioa jarriko da, informazio estatistikoa eta segurtasuna areagotzeko, eta itzulpen lana hobetzeko tresnak eskuratuko dira
- Aldundiaren hainbat erabileretan dokumentu elebakarrak askietsiko dira, eta horren arabera arautuko da zer itzuli behar den eta zer ez
- Interpretazio lanen antolaketa finduko da, zerbitzuaren kalitatea bermatzeko
- IZFE eta Modernizazio zuzendaritzarekin batera software librearen aldeko hautua bultzatuko da GFAn, euskaraz aukera gehiago egonda berdintasuna hurbiltzen duelako.
- PuntuEus domeinuaren erabilera zabalduko da aldundiaren periferian, euskararen ikusgarritasuna handitzeko

Komunikazioa

- Aldundiaren komunikazioan hizkuntza irizpideak finkatuko dira, ahal den neurrian Gipuzkoako eragile nagusiekin batera.
- Aldundiaren komunikazio sistema berriaren baitan, HBZNren agerkari digitalak berrituko dira eta interaktiboagoak bihurtuko.
- Hitzarmenen artean nabarmenenak sinatzeko ekitaldiak baliatuko dira kanpo komunikazioa egiteko.
- Abbadia saria urtero emango da abenduaren 2an, eta aztertuko da sariarekin lotutako ekitaldiren bat antolatzea Hendaiaiko Abbadia gazteluan
- Euskararen Foroa urtean bitan bilduko da, maiatzean eta azaroan
- Urtero udaberriaren egiten den Udaltop baliatuko da HBZNk sustatzen duen ikerketaren emaitzak ezagutarazteko
- Udal hautetsiekin abiatu den dinamikaren baitan, saio nagusi bat egingo da urtero irailean

Lantaldea

- Lantaldean errelebo handia dator (lau erretiratu 5/6 urteko epean) eta beharrezkoa da aurreikuspenak egitea. Zainduko da zein den denboraren joanean lanaren bilakaera eta taldearen neurri egokia, eta horren arabera erabakiko da ea erretiroa hartutako guztiak ordezkatu behar diren ala ez.
- Trebatzaileen kontratua berrikusi egingo da, eraginkortasunaren bila.
- GFAn enplegu eskaintza sustatuko da lanpostuei egonkortasuna emateko; eta bitartean lan poltsak eskatuko dira, zerrendak eguneratzeko
- Lantaldean arduren banatzea zehaztuko da; tartean, diru laguntzen kudeaketa arinduko zaio zerbitzuburuari, eta idazkariaren eginkizuna areago lotuko zaio zuzendariari.
- BIKAIN ezartzeko laguntza modura erakunde barruko ebaluatzaileak aktibatuko dira (departamenduei arduraldi bat eskatuta) eta, gehiago behar izango balitz, kanpo zerbitzua kontratatuko da.
- Aztertuko da ea normalizazioa eta itzulpena zerbitzu bakarrean mantendu behar diren, ala bi zerbitzutan banatuta harremanak hobetuko lirakeen. Edonola ere, banaketa ez litzateke gauzatuko egungo zerbitzuburuaren erretiratu arte.



Gizarteari begira

Udalekin, hizkuntza sektorearekin eta Gipuzkoako eragile nagusiekin elkarlanean jardutea, politikak lerrokatzeko eta pertsonen hizkuntza aukerak berdintzera bideratutako proiektuak partekatzeko.

Erakundeak

Formulazioan berariaz jasotzen ez bada ere, zuzendaritzaren jarduera kokatzen da Eusko Jaurlaritzak HPSren bitartez ezarritako marko orokorrean, eta beste herri administrazioekin bateratzen da HAKOBaren bitartez. Halaber, harremanak landuko dira Nafarroako Euskarabidearekin eta Iparraldeko EEPekin.

Atal honetan, Aldundiaren lehentasunezko jardun esparrua da Gipuzkoako udalekin daraman lankidetzak. Dagoeneko teknikariek sendoa den lankidetzak, legealdi honetan hedatu nahi da udal hautetsietara, udaletan ere hizkuntza kudeaketa ardatzeko gaia izan dadin.

Ildo nagusiak

- HAKOBaren baitan, eta baita EAEz kanpoko euskararen administrazioekin sustatuko da estrategiak bateratzea eta politikak sinkronizatzea
- Udal<>ekin programaren baitan bigarren ildoak garatuko da hautetsientzat, eta ekimen bateratuak antolatuko dira hautetsi eta teknikarientzat
- Udaltop sendotuko da eta aldiro baliatuko ikerketa lerroen ondorioak kontrastatzeko
- Udaberriaren espero den Udal Lege berria baliatuko da udalen eta aldundiaren artean lankidetzak marko egonkor bat finkatzeko
- UEMAREN bilakaera sustatuko da, udal handiak ere euskaraz jarduteko ibilbidean eragile izan dadin
- EUDEL-en markoan kokatuko dira aurreko lan guztiak

Hizkuntza sektorea

Hizkuntza sektorearekin adostu da aurrekontuetan aldaketak egingo direla partaidetzak prozesu baten ondorioen arabera. Zuzendaritzaren helburu orokorrak bi dira prozesu horrekin: egiteko moldeak berritzea, egindakoa eraginkorragoa izan dadin; eta hizkuntzaren ohiko jardun mugak gaitzitzea, esparru irekian lehiatzeko. Ez da ahaztu behar euskararen 'sektoreak' % 4,2ko ekarpena egiten diola Euskadiko BPGri, ia turismoak adina.

Ildo hauek landuko dira bereziki:

- Hitzarmenen eta deialdien berme juridikoa handitzeko urte anitzeko deialdiak eta finantzaketa egonkorreko formulak (federazio, partzuergo, erakunde laguntzaile...) sakon aztertuko dira.
- Partaidetzak prozesua (diseinatzea, emaitzak kontrastatzea Euskararen Foroan eta ondoren aurrekontuetara eramatea) arrakastatsua izatea bilatuko da, hurrengo urteetan ere errepika dadin.
- Bitartekaritza eta lan 'komertziala' egingo da, bereziki Aldundiaren ekonomia suspertzeko planetan –eta, oro har, aurrekontuetan- hizkuntza sektoreak izan dezan bere neurriari dagokion pisua.



Arlo sozioekonomikoa

Arlo sozioekonomikoan lehentasuna izango da krisiaren aurreko euskara planen dinamika berreskuratzea eta eguneratzea. Horretarako, giltzarri bat da ekonomia suspertzeko planean uztartzea hazkunde ekonomikoa eta garapen soziala (baita hizkuntzaren arloan ere); eta bestea da enpresekin eta erakundeekin (Osakidetza lehen planoan) lankidetzan aritzea irizpideak finkatzeko orduan.

Hauek izango dira ildo nagusiak:

- Aldundiak helburu hartu duenez Gipuzkoan ezberdintasunak (ekonomiko eta sozialak bezala, genero edo hizkuntza desberdintasunak) ahalik eta txikiak izatea, lurraldeko enpresen gizarte erantzukizunean helburu hori txertatzeko marko kontzeptuala garatuko da eta ekintza praktikoak sustatu.
- Lidergo partekatua ikuspegitik, GFA lurraldeko eragile sozioekonomikoekin sarean jardungo da euskara gero eta normalago 'defektuz' erabiltzen.
- Hizkuntza planei pizgarri fiskalak jartzeko modua bilatuko da Ogasunarekin.
- Jendaurreko hizkuntza irizpideak (*Jendaurrean erabili* egitasmoa) edota hornitzaileekikoak Gipuzkoako eragile nagusiekin finkatzeko eta gauzatzeko protokoloak landuko dira.
- Enpresa eta merkataritza arloetan hizkuntza kudeaketa sustatzen eta neurtzen duten ziurtagirien erabilera sustatuko da.

2016a

Gizarteari begirako atal honetan, nabarmena izango da Donostian eta Gipuzkoan 2016ko kultura hiriburutzaren urte osoko eragina. Aldundiaren parte Kultura sailak kudeatzen badu ere, Zuzendaritzaren berariazko esparruan sartzen dira bi egitasmo mardul -Hizkuntza gutxituen Protokola/Goi Bilera, eta Hitzargiak izenekoak- eta beste hainbat txikiagoak.

Urtean zehar hau egingo du HBZNK:

- Zuzenean hizkuntzekin lotzen diren egitasmoei lankidetzeta eta sustapena eskainiko zaie, programaren baitan duin eta erakargarri ager daitezen.
- Donostiako udalarekin lankidetzeta estutzeko baliatuko dugu hiriburutza, bide berrien eta egonkorren bila.

2018a

Honez gain, eta poliki bada ere, beste data bat ari da nabarmentzen: 2018. urtea. Hain zuzen, urte horretan beteko bai da mende bat Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Kongresua egin zenetik, eta mende erdi bat euskararen batasuna adostu zenetik Arantzazun. Hainbat erakundetan mugimenduak hasi dira, 2018ko ospakizunaren markoan sor daitezkeen egitura estrategiko iraunkorrak.

Testuinguru honetan, Aldundiak bi ildo hauek lehenetsiko ditu:

- 2018ko ospakizuna epe luzeko egitasmo estrategikoen marko izatea, herri erakundeen gidaritzapean eta gizarte eragileen partaidetzarekin.
- Gipuzkoak eta Oñati-Arantzazuk ospakizunean duten zentraltasuna ikusita, Oñatiko udalarekin lankidetzeta sendoan aritzea antolaketa lanetan.



Ikerketa eta berrikuntza

Berrikuntzarako jarritako baliabideak indartzea, hainbat ikerketa lerro abiarazteko: hizkuntza ulertzeko metodologia bizkorra, autoritate tekniko bat diseinatzea, enpresetako hizkuntza planetarako neurri fiskalak, 10-16 urteko segmentuan euskararen erabilera sustatzeko plan sistematikoa

Zuzendaritzak badu ibilbide bat hizkuntzaren gaineko ikerketa sustatzeko, batez ere Soziolinguistika Klusterrarekin duen hitzarmenaren bitartez. Legealdi honetan lankidetzan hori indartu eta birmoldatu egingo da, ikerketa lerro berriak irekitzeko.

Garrantzi berezia emango zaie ondoko lerroei:

- Tokiko aktibazioa sustatzeko metodologia, aktibazio gune partekatuentzat (tokiko hautetsi, teknikari, eragile...).
- 10-16 adin tarteko hiztunek eskolaz kanpoko jardueretan behar duten hizkuntza laguntza, eskolan euskaldundu ondoren euskaldun iraun dezaten.
- Ulermena berriaz lantzeko metodologia azkarra, HABErekin lankidetzan.
- Enpresek hizkuntza planetan egindako gastuari pizgarri fiskalak ezartzeko aukera.
- Herri erakundeek erabil ditzaketen formula juridiko seguruak bilatzea ekimen pribatuak modu egonkorrean finantzatzeko: federazioa, partzuergoa, erakunde laguntzailea...
- Politika publikoak batera ezartzeko ereduak, herri txikienetara ere iris daitezkeen: eduki integratuak, teknikari 'mistoak', eskualdekako antolaketa...
- Hizkuntza normalizazioaren epe luzeko helburua (amets doituak) definitzeko ahalegina, eta harainoko ibilbideak, tarteko helmugak, plangintza, baliabideak, eragileak eta funtzioak...

Lerro hauez gain, sektorearekin egin beharreko partaidetza prozesuak azalera ditzake ikerketa premia berriak.



12) Jarraipen metodologia

Plan estrategikoaren jarraipena egiteko jarraipen batzorde bat osatuko da:

Jarraipen batzordearen osaketa izango da:

- HBZNren zuzendari nagusia.
- HBZNren zerbitzburua.
- Atalburua, Euskararen normalizazio programak.
- Modernizazioko goi-mailako teknikaria.

Jarraipen batzordearen eginkizunak:

Hilean behin:

- PEaren ekintzen emaitzen analisia eta ebaluazioa egitea, ekintzak eguneratzea eta, lortutako emaitzen arabera, ekintza zuzentzaileak proposatzea.
- Jarraipen Batzordearen bilera egitea (gai zerrenda, erabakiak hartu eta akta).

Hiru hilean behin:

- PEaren aurrerapen txostenak idaztea non jasoko baitira aurrerapen maila, ekintzen aurrerapena eta hartu beharreko erabakiak.

Urtean behin:

- PE urtero berrikustea (irailean, urteko txostena eginez), hurrengo urteko Kudeaketa Plana egiteko aurre pauso bezala.
- Hurrengo urteko KUDEAKETA PLANA egitea (hemen jasoko dira beharrezkoak diren ekintzak, Plan Estrategikoan finkaturiko helburuak lortzeko).